

ETENGABE BOTEREAREN BILA

Lehenengo lepotik burua. Historian zehar, behin eta berriz urratu egin dira bestearen eskubideak eta bestearen askatasuna. Gaur egun argi eta garbi ikusten da Trumpen bahiketetan eta gerretan islatuta. Izan ere, bere esanetan, “Estatu Batuen babesa bermatu behar da”, hau da, Trumpen kontrola bermatu behar da. Eta horrek pentsarazi egin gaitzake, ea kontrol hori bilatzeko nahia gizakiak berezkoa duen, gure instintuen parte den ala ez. Beraz, bestea menderatzea gure instintua bada, ba al da gizakiaren elkarbizitza posiblea?



Lehenik eta behin, ukazina da boterea bilatzeko joera dugula. Hala ere, joera horren arrazoia bilatzea izango litzateke gakoa. Agian joera horren atzetik dagoena asetzeko nahia da gure arteko gatazken errudun.

Alde batetik, gizakia animalia gisa ulertuta, ez dugu natura aztertu baino behar. Animaliak, bereziki ugaztunak, lurraldekoiak izan ohi dira eta taldeka egoten ohi dira. Gugandik gertu dauden tximinoek alfa indibiduo bat dute; inoren gainetik janariaren, eremuaren eta emeen kontrola duena. Baina badago nolabaiteko lehia, alfaren azpikoek berari aurre egiteko prest



ikusten badira, bere lekua har baitezakete, animalien (eta ondorioz gizakion) izaera biologikoaren parte balitz bezala. Egitura honek, ordea, badu bere zentzua. Taldeek babesa eta ziurtasuna ematen dute, eta alfaren existentziak gatazkak murrizten ditu. Alfa indartsuena izateak ziurtatzen du kanpo arriskuei aurre egiteko eta talde barnekoak menderatzeko prest

dagoela beti. Hortaz, animalietan botere nahiak arrazoi funtzionala besterik ez du.

Gizakiok, ordea, arrazoitze ahalmena dugu eta guretzat emakumeak eta janaria kontrolatu behar diren gauzak kontsideratzen ez ditugun bezala, gure instintuak kontrol ditzakegu. Bakoitzaren nahiak aitortzeko gureak aitortzen ditugun antzera. Beraz, animalion botere nahiak bizirik irauteko arrazoi funtzionala bazuen ere, gizakia kalte dezake, autodeterminazio indibiduala ukatzen baitu. Gizakiok ere askeak izan nahi garen heinean, bi bide ditugu. Zilegi egiten dugun botere bati eman indarra, onartzen dugun erdi-askapen egoera batean bizitzeko, ala gure eskuetan hartzea gure autodeterminazioaren defentsa.

Batetik, boterea egituratzen duten sistemek eskaintzen duten segurtasun faltsuari heltzea dago, non arauak eta hierarkiak barneratuz gure askatasunaren zati bat borondatez uzten dugun; bestetik, arrisku handiagoa dakarren arren, geure burua eta besteena subjektu autonomotzat hartzea. Lehen aukerak erosotasuna eta egonkortasuna ematen ditu, baina mendekotasuna betikotzen du; bigarrenak, aldiz, ziurgabetasuna dakar, baina askatasun errealerako bidea irekitzen du.

Testuinguru honetan, boterea ez da berez ekintza bat, baizik eta ahalmen bat: gizabanakoaren baitan dagoen potentzia, agertu edo ez agertu daitekeena. Ez da ona edo txarra berez, baizik eta nola aplikatzen den ematen dio izaera morala. Lehen esan bezala, gizakiaren berezitasuna da ahalmen hori kontrolatzea da; izan ere, badu aukera bere boterea nola erabili edo ez erabiltzea erabakitzeko. Hortaz, hor sortzen da borondatearen eremua.

Horrela, gure baitan bi botere mota bereiz daitezke: instintua, existentzia bermatzera bideratua, eta borondatea, gure esentzia defendatzera zuzendua. Instintuak segurtasuna, bizirik irautea eta kontrola bilatzen ditu; borondateak, ordea, autodeterminazioa, kontzientzia eta askatasuna. Bi indar horien arteko talkan erabakitzen da gure jokabidea:



instintuari jarraitzeak bestearen gaineko nagusitasuna bilatzera garamatza; borondateari jarraitzeak, aldiz, bestea norbera bezala, subjektu libre gisa aitortzera. Azken batean, gizakiaren erronka ez da soilik existitzea, baizik eta izatea, eta horretarako ezinbestekoa da instintuaren gaintik borondatea jartzea.

Ondorioz, lehen planteatutako galderari erantzunez, gizakien arteko elkarbizitza ez da ezinezkoa gure instintuek boterea bilatzera bultzatzen gaituztelako. Aitzitik, posible da neurrian non borondatea instintuaren gaintik jartzeko gai garen. Hau da, ez da gure izaera biologikoa gainditzea, baizik eta hura gidatzea: segurtasunaren izenean bestearen askatasuna ukatu ordez, askatasun partekatu baten alde egitea. Horrela bakarrik lor daiteke benetako elkarbizitza, non boterea ez den nagusitzeko tresna, baizik eta izateko eta elkar aitortzeko bidea.